BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA
BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA



# Laburpena / Sumario

## I. Atala / Sección I

## Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa / Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

### Foru Aldundia / Diputación Foral

**Ogasun eta Finatza Saila** — **4823** — **Departamento de Hacienda y Finanzas**

1/2017 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, martxoaren 7koa, 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa, aldatzen duena, zoru-klausula deritzenei dagokienez. — 4823 — DECRETO FORAL NORMATIVO 1/2017, de 7 de marzo, por el que se modifica la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en relación con las denominadas cláusulas suelo.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 21/2017 FORU DEKRETUA, martxoaren 7koa, zeinaren bidez erabakitzen baita «Udalekuak 2017» kanpainako udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoa ezartzea eta garatzen baitira haren gaineko arauak. — 4825 — DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 21/2017, de 7 de marzo, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del Precio Público por las estancias en colonias y campamentos en la campaña «Udalekuak 2017».

**Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Saila** — **4827** — **Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio**

Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko foru diputatuaren otsailaren 27ko 266/2017 FORU AGINDUA, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaia betearazteari dagokiona. — 4827 — ORDEN FORAL del diputado foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio 266/2017, de 27 de febrero, relativa a la ejecución de la sentencia dictada por la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Epaia betearaztea. — 4828 — Ejecución de la sentencia.

## II. Atala / Sección II

## Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa / Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia

**Bilboko Udala** — **4830** — **Ayuntamiento de Bilbao**

**Abanto-Zierbenako Udala** — **4840** — **Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana**

**Basauriko Udala** — **4870** — **Ayuntamiento de Basauri**

**Gorlizko Udala** — **4907** — **Ayuntamiento de Gorliz**

**Getxoko Udala** — **4910** — **Ayuntamiento de Getxo**

**Ugao-Miraballeseko Udala** — **4918** — **Ayuntamiento de Ugao-Miraballes**

**Sestaoko Udala** — **4918** — **Ayuntamiento de Sestao**

cve: BAO-BOB-2017a051

| | | |
|---|---|---|
| **Derioko Udala** | **4927** | **Ayuntamiento de Derio** |
| **Sopelako Udala** | **4928** | **Ayuntamiento de Sopela** |
| **Markina-Xemeingo Udala** | **4928** | **Ayuntamiento de Markina-Xemein** |
| **Lezamako Udala** | **4929** | **Ayuntamiento de Lezama** |
| **Iurretako Udala** | **4929** | **Ayuntamiento de Iurreta** |
| **Orozkoko Udala** | **4929** | **Ayuntamiento de Orozko** |
| **Urduñako Udala** | **4930** | **Ayuntamiento de Orduña** |
| **Bermeoko Udala** | **4931** | **Ayuntamiento de Bermeo** |
| **Bizkaiko Garraio Partzuergoa** | **4931** | **Consorcio de Transportes de Bizkaia** |
| **Bilbao-Bizkaiako Ur-Partzuergoa** | **4938** | **Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia** |
| **Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatea** | **4938** | **Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales** |
| **Barakaldoko Udal Kirol Erakundea** | **4940** | **Instituto Municipal del Deporte de Barakaldo** |
| **Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatea** | **4941** | **Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta** |


## III. Atala / Sección III

## Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración Autonómica del País Vasco


| | | |
|---|---|---|
| **Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituren Saila** | **4942** | **Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras** |
| **Ur Agentzia** | **4944** | **Agencia Vasca del Agua** |


## IV. Atala / Sección IV

## Estatuko Administrazio Orokorra / Administración General del Estado


| | | |
|---|---|---|
| **Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa** | **4944** | **Ministerio de Agricultura y Pesca, Alimentación y Medio Ambiente** |


## V. Atala / Sección V

## Justizi Administrazioa / Administración de Justicia


| | | |
|---|---|---|
| | **4945** | **Tribunal Superior de Justicia del País Vasco** |
| | **4945** | **Juzgado de lo Social número 1 de Bilbao (Bizkaia)** |
| | **4947** | **Juzgado de lo Social número 2 de Bilbao (Bizkaia)** |
| | **4948** | **Juzgado de lo Social número 3 de Bilbao (Bizkaia)** |
| | **4949** | **Juzgado de lo Social número 5 de Bilbao (Bizkaia)** |
| | **4951** | **Juzgado de lo Social número 6 de Bilbao (Bizkaia)** |
| | **4952** | **Juzgado de lo Social número 7 de Bilbao (Bizkaia)** |
| | **4956** | **Juzgado de lo Social número 8 de Bilbao (Bizkaia)** |
| | **4957** | **Juzgado de lo Social número 9 de Bilbao (Bizkaia)** |
| | **4957** | **Juzgado de lo Social número 10 de Bilbao (Bizkaia)** |


cve: BAO-BOB-2017a051

# I. Atala / Sección I

# Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
# Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Foru Aldundia / Diputación Foral

### Ogasun eta Finatza Saila

**1/2017 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, martxoaren 7koa, 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa, aldatzen duena, zoru-klausula deritzenei dagokienez.**

2013ko maiatzaren 9an, Auzitegi Gorenak zoru-klausulak deusezak zirela deklaratu zuen, abusuzkoak zirelako. Deuseztasun-deklarazio horrek ez zien eragiten ebazpen judizialen bidez gauza epaituaren indarrarekin behin betiko ebatzitako egoerei eta 2013ko maiatzaren 9a baino lehen ordaindutako zenbatekoei. Auzitegiak deuseztzat jo zituen klausulak, baina ez zuen gauza bera egin haiek agertzen diren kontratuen kasuan.

Halaber, 2015eko martxoaren 25eko epaiaren bidez, Auzitegi Gorenak atzeraeraginaren muga berretsi zuen eta doktrina hau ezarri zuen: zoru-klausula bat abusuzkotzat jotzen zenean, 2013ko epaia argitaratu zen datatik aurrera ordaindutakoari zegokiona itzuliko zitzaiola mailegu-hartzaileari.

Hala ere, Espainiako hainbat auzitegik zalantzan jarri zuten Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean, Europar Batasuneko Zuzenbidea oinarri hartuta. Horretarako, arazo prejudizialak aurkeztu zituzten. 2016ko abenduaren 21ean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak epaia eman du C-154/15, C-307/15 eta C- 308/15 auzi metatuetan, eta arazo prejudizial horien inguruko erantzuna eman du.

Epai horretan, Justizia Auzitegiak esan du kontsumitzaileekin egindako kontratuetako abusuzko klausulei buruzko Kontseiluaren 93/13/EEE Zuzentarauaren 6. artikuluaren 1. zenbakian ezarritakoa ez datorrela bat halako klausulen inguruko Estatuko jurisprudentziarekin. Izan ere, jurisprudentzia horretan honako hau ezartzen da: profesional batek kontsumitzaile batekin egindako kontratu batean dagoen klausula bat abusuzkotzat jotzen denean (zuzentarau horren 3. artikuluaren 1. zenbakiaren arabera), deklarazio horri lotutako itzulketaren ondorioak denboran mugatu behar direla, klausula abusuzkotzat jo zuen ebazpen judiziala eman zenetik aurrera klausula hori dela-eta oker ordaindutakoari soilik ezarriz itzulketaren ondorio horiek.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren erabaki horren ondorioz, gehitu egingo da ukitutako kontsumitzaileek zoru-klausulak direla-eta ordaindutako kopuruak itzultzeko aurkezten dituzten demanden kopurua. Ildo horretan, zoru-klausulak direla-eta kontsumitzaileak babesteko premiazko neurrien 2017ko urtarrilaren 20ko 1/2017 Errege Lege Dekretua eman da, mailegu-kontratu bat edo kreditu bat sinatuta duten kreditu-erakundeekin zoru-klausulen inguruko akordioak lortzeko bidea errazteko kontsumitzaileei, aipatutako erabaki judizialetan ezarritakoa betetzeko.

Azaldutakoaren ondorioz, arautu egin behar da finantza-erakundeekin lortutako akordioen ondorioz edo epaiak edo arbitrajelaudoak betetzearen ondorioz, maileguen interes-tasak mugatzeko klausulak itzultzeagatik jasotako kopuruei dagokien tratamendu fiskala. Horretarako, aldatu egin da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria sartu da, tratamendu fiskal hori arautzeko.

### Departamento de Hacienda y Finanzas

**DECRETO FORAL NORMATIVO 1/2017, de 7 de marzo, por el que se modifica la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en relación con las denominadas cláusulas suelo.**

El 9 de mayo de 2013 el Tribunal Supremo declaró la nulidad, por su carácter abusivo, de las cláusulas suelo. Esta declaración de nulidad no afectaba ni a las situaciones definitivamente decididas por resoluciones judiciales con fuerza de cosa juzgada ni a las cantidades satisfechas antes del 9 de mayo de 2013. El Tribunal declaró la nulidad de las cláusulas pero no de los contratos en los que se insertaban las mismas.

Asimismo, el Tribunal Supremo en sentencia de 25 de marzo de 2015, confirmó la limitación de la eficacia retroactiva fijando como doctrina que cuando se declare abusiva una cláusula suelo, la devolución al prestatario se efectuará a partir de la fecha de publicación de la sentencia de 2013.

No obstante, diversos tribunales españoles cuestionaron ante el Tribunal de Justicia de la Unión Europea la jurisprudencia del Tribunal Supremo sobre la base del Derecho de la Unión Europea mediante la presentación de cuestiones prejudiciales. El 21 de diciembre de 2016 el Tribunal de Justicia de la Unión Europea ha dictado sentencia en los asuntos acumulados C-154/15, C-307/15 y C-308/15 dando respuesta a esas cuestiones prejudiciales.

En ella, el Tribunal de Justicia ha fallado que el artículo 6, apartado 1, de la Directiva 93/13/CEE del Consejo, sobre cláusulas abusivas en los contratos celebrados con los consumidores, debe interpretarse en el sentido de que se opone a una jurisprudencia nacional que limita en el tiempo los efectos restitutorios vinculados a la declaración del carácter abusivo, en el sentido del artículo 3, apartado 1, de dicha directiva, de una cláusula contenida en un contrato celebrado con un consumidor por un profesional, circunscribiendo tales efectos restitutorios exclusivamente a las cantidades pagadas indebidamente en aplicación de tal cláusula con posterioridad al pronunciamiento de la resolución judicial mediante la que se declaró el carácter abusivo de la cláusula en cuestión.

Este pronunciamiento del Tribunal de Justicia de la Unión Europea va a suponer el incremento de las demandas de los consumidores y de las consumidoras afectadas solicitando la restitución de las cantidades pagadas en aplicación de las cláusulas suelo. En este sentido, se dicta el Real Decreto-Ley 1/2017, de 20 de enero, de medidas urgentes de protección de consumidores en materia de cláusulas suelo, al objeto de establecer un cauce que facilite a los consumidores y a las consumidoras la posibilidad de llegar a acuerdos con las entidades de crédito con las que tienen suscrito un contrato de préstamo o crédito en materia de cláusulas suelo como consecuencia de los pronunciamientos judiciales mencionados.

Por lo expuesto, es preciso regular el tratamiento fiscal que corresponde a las cantidades percibidas por la devolución de las cláusulas de limitación de tipos de interés de préstamos derivados de acuerdos celebrados con las entidades financieras o del cumplimiento de sentencias o laudos arbitrales. A estos efectos, se modifica la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas introduciendo una nueva disposición adicional trigésimo quinta que regula el tratamiento fiscal correspondiente.

cve: BAO-BOB-2017a051

Adierazi behar da foru dekretu arauemaile honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Finantza-erakundeekin lortutako akordioen ondorioz, maileguen interes-tasak mugatzeko klausulak itzultzeagatik jasotako kopuruei dagokien tratamendu fiskala berehala arautu behar denez eta tratamendu horrek Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko abenduaren 21eko epaian ezarritakoa bete behar duenez, premiazko arrazoiak direla medio, foru dekretu arauemailea erabili behar da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikuluaren 2. zenbakian ezarritakoa kontuan hartuta. Hori dela eta, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta eta Foru Aldundiak 2017ko martxoaren 7ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DA:

**Artikulu bakarra.—*Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren aldaketa***

2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako eta preskribatu gabeko aurreko zergaldietarako ondorioekin, hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria erantsi zaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauari. Hona hemen horren testua:

**«Hogeita hamabosgarrena.—*Finantza-erakundeekin lortutako akordioen ondorioz edo epaiak edo arbitraje-laudoak betetzearen ondorioz, maileguen interes-tasak mugatzeko klausulak itzultzeagatik jasotako kopuruei dagokien tratamendu fiskala***

1. Zerga honen zerga-oinarrian ez dira sartuko, finantza-erakundeekin lortutako akordioen ondorioz, erakunde horiei maileguen interes-tasak mugatzeko klausulak direla-eta interes gisa aurretiaz ordaindutako zenbatekoetatik itzulitako kopuruak, eskudirutan jaso zein bestelako konpentsazio-neurri batzuen bidez jaso. Ez dira sartuko kalte-ordain gisa sortutako interesak ere.

2. Zergadunak aurretiaz ordaindutako zenbatekoek, 1. zenbakian ezarritako itzulketa eragin dutenek, tratamendu fiskal hau izango dute:

a) Aurreko ekitaldietan, kopuru horiek ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkariaren oinarrian sartu direnean, haien gaineko kenkaria egiteko eskubidea galduko da, eta finantza-erakundearekin akordioa egin den ekitaldian sorrarazitako kuota likidoari oker kendutako kopuruak baino ez zaizkio gehitu beharko, betiere Administrazioak zerga-zorra dagokion likidazioaren bidez zehazteko duen eskubidea preskribatu gabe duten ekitaldietan kendutakoak badira. Kopuru horietan ez dira sartuko berandutze-interesak.

Ez zaio aplikatuko goiko paragrafoan aurreikusitako batuketa, ukitutako zergadunarekin akordioa egin eta gero, finantza-erakundeak ohiko etxebizitza erosteko maileguaren printzipala gutxitzeko erabiltzen duen zatiari.

b) Kopuru horiek gastu kengarritzat jo badira Administrazioak zerga-zorra dagokion likidazioaren bidez zehazteko duen eskubidea preskribatu gabe duten aurreko ekitaldietan, izaera hori galduko dute eta autolikidazio osagarri bat aurkeztu beharko da ekitaldi horietarako, eta zergadunari ez zaio ezarriko zehapenik, berandutze-interesik edo errekargurik, akordioaren datatik zerga honen autolikidazioa aurkezteko hurrengo epea amaitzen den egunera bitarteko epean.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral Normativo se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

La necesidad de regular de manera inmediata el tratamiento tributario de las cantidades percibidas por la devolución de las cláusulas de limitación de los tipos de interés de préstamos derivadas de acuerdos con las entidades financieras, respetuoso con la establecido por la sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea de 21 de diciembre de 2016, exige la utilización del Decreto Foral Normativo por razones de urgencia, en virtud de la previsión contenida en el apartado 2 del artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación de la Diputación Foral en su reunión de 7 de marzo de 2017

SE DISPONE:

**Artículo único.—*Modificación de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas***

Con efectos desde el 1 de enero de 2017, así como para los periodos impositivos anteriores no prescritos, se añade una nueva disposición adicional trigésimo quinta a la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, con la siguiente redacción:

**«Trigésimo quinta.—*Tratamiento fiscal de las cantidades percibidas por la devolución de las cláusulas de limitación de tipos de interés de préstamos derivadas de acuerdos celebrados con las entidades financieras o del cumplimiento de sentencias o laudos arbitrales***

1. No se integrará en la base imponible de este Impuesto la devolución derivada de acuerdos celebrados con entidades financieras, en efectivo o a través de otras medidas de compensación, junto con sus correspondientes intereses indemnizatorios, de las cantidades previamente satisfechas a aquéllas en concepto de intereses por la aplicación de cláusulas de limitación de tipos de interés de préstamos.

2. Las cantidades previamente satisfechas por el o por la contribuyente objeto de la devolución prevista en el apartado 1 anterior, tendrán el siguiente tratamiento fiscal:

a) Cuando tales cantidades, en ejercicios anteriores, hubieran formado parte de la base de la deducción por adquisición de vivienda habitual, se perderá el derecho a practicar la deducción en relación con las mismas, debiendo sumar a la cuota líquida devengada en el ejercicio en el que se hubiera celebrado el acuerdo con la entidad financiera, exclusivamente las cantidades indebidamente deducidas en los ejercicios respecto de los que no hubiera prescrito el derecho de la Administración para determinar la deuda tributaria mediante la oportuna liquidación, sin inclusión de intereses de demora.

No resultará de aplicación la adición prevista en el párrafo anterior respecto de la parte de las cantidades que se destine directamente por la entidad financiera, tras el acuerdo con el contribuyente afectado, a minorar el principal del préstamo destinado a la adquisición de la vivienda habitual.

b) Cuando tales cantidades hubieran tenido la consideración de gasto deducible en ejercicios anteriores respecto de los que no hubiera prescrito el derecho de la Administración para determinar la deuda tributaria mediante la oportuna liquidación, se perderá tal consideración, debiendo presentarse autoliquidación complementaria correspondiente a tales ejercicios, sin sanción, intereses de demora, ni recargo alguno en el plazo comprendido entre la fecha del acuerdo y la finalización del siguiente plazo de presentación de autoliquidación por este Impuesto.

cve: BAO-BOB-2017a051

c) Finantza-erakundearekin kopuruak itzultzeko egindako akordioa baino lehen zerga honen autolikidazioa aurkezteko epea amaitu gabe dagoen ekitaldietan ordaindu baditu zergadunak kopuru horiek, kopuruok eta a) letrako bigarren paragrafoan aipatzen diren kopuruak ez dira sartuko ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkariaren oinarrian, eta ez dira joko gastu kengarritzat ere.

3. Aurreko zenbakietan xedatutakoa berdin aplikatuko da aurreko 1. zenbakian aipatutako kopuruak epai judizialak edo arbitrajelaudoak betearaztearen edo betetzearen ondorioz itzuli badira.»

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.—*Indarrean jartzea***

Foru Dekretu Arauemaile hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

**Bigarrena.—*Arauak emateko gaikuntza***

Baimena ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari foru dekretu arauemaile hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

**Hirugarrena.—*Batzar Nagusiei igortzea***

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikuluaren 2. zenbakian ezarritakoarekin bat, foru dekretu arauemaile honen onespenaren berri emango zaie Batzar Nagusiei, berrets dezaten.

Bilbon, 2017ko martxoaren 7an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-207)

•

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 21/2017 FORU DEKRETUA, martxoaren 7koa, zeinaren bidez erabakitzen baita «Udalekuak 2017» kanpainako udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoa ezartzea eta garatzen baitira haren gaineko arauak.**

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, «Udalekuak» udako kolonia eta kanpamentuen kanpaina antolatzen du urtero, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako foru aldundiekin koordinaturik. Kanpaina horien helburua da aisia eta astialdiaren arloko zenbait jarduera antolatzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko umeek natura ezagutzeko eta oporrez gozatzeko.

Kanpaina horretan eskainitako zerbitzuak direla eta (ostatua, janaria, garraioa, dinamizazioa...), beharrezkoa da haien prezio publikoak ezartzea.

Aurreko ekitaldietan, apirilaren 11ko 21/1995 Foru Dekretuaren bidez arautu dira udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoak (izan ere, dekretu horrek udalekuetan eta kanpamenduetan egoteko prezio publikoa ezartzea erabaki eta horren gaineko arauak garatzen ditu); dekretuaren 4. artikuluan jasotzen dira «Udalekuak» kanpainarako prezio publikoa zehazten duten elementu kuantitatiboak.

Foru-dekretu honen helburua zera da: aurreko foru-dekretu horren 4. artikuluko 1. zenbakia berridaztea, kontuan hartuta 2017. urterako udaleku eta kanpamentuetan eginiko egonaldiak direla-eta ordaindu beharreko prezio publikoen elementu kuantitatiboen berrikuspena eta eguneraketa.

c) Cuando tales cantidades hubieran sido satisfechas por el o por la contribuyente en ejercicios cuyo plazo de presentación de autoliquidación por este Impuesto no hubiera finalizado con anterioridad al acuerdo de devolución de las mismas celebrado con la entidad financiera, ni dichas cantidades ni las cantidades a que se refiere el segundo párrafo de la letra a) anterior formarán parte de la base de deducción por adquisición de vivienda habitual, ni tendrán la consideración de gasto deducible.

3. Lo dispuesto en los apartados anteriores será igualmente de aplicación cuando la devolución de cantidades a que se refiere el apartado 1 anterior hubiera sido consecuencia de la ejecución o cumplimiento de sentencias judiciales o laudos arbitrales.»

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.—*Entrada en vigor***

El presente Decreto Foral Normativo entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

**Segunda.—*Habilitación***

Se autoriza a la Diputación Foral de Bizkaia y al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo y ejecución del presente Decreto Foral Normativo.

**Tercera.—*Remisión a Juntas Generales***

De acuerdo con lo previsto en el apartado 2 del artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, de la aprobación del presente Decreto Foral Normativo se dará cuenta a las Juntas Generales para su posterior ratificación.

En Bilbao, a 7 de marzo de 2017.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-207)

•

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 21/2017, de 7 de marzo, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del Precio Público por las estancias en colonias y campamentos en la campaña «Udalekuak 2017».**

El Departamento de Euskera y Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, a través de su Dirección General de Cultura organiza anualmente, la campaña de colonias y campamentos en período estival denominada «Udalekuak», en coordinación con el resto de las Diputaciones Forales de la Comunidad Autónoma Vasca y con el fin de promover diversas actividades dentro del campo del ocio y tiempo libre, destinadas a facilitar y acercar el contacto con la naturaleza y el disfrute de los periodos vacacionales de las niñas y niños del Territorio Histórico de Bizkaia.

De la prestación propia de los servicios ofertados: alojamiento, alimentación, transporte, dinamización… dentro de la citada campaña, surge la necesidad de establecer los precios públicos.

El establecimiento de los precios públicos para estancias en colonias y campamentos ha sido regulado en ejercicios anteriores mediante el Decreto Foral 21/1995, de 11 de abril, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del precio público por las estancias en colonias y campamentos, recogiendo en su artículo 4 los elementos cuantitativos definidores de dicho precio público para la campaña «Udalekuak».

El objeto del presente Decreto Foral es dar una nueva redacción al apartado 1 del artículo 4 del Decreto Foral mencionado, considerando la revisión y actualización de los elementos cuantitativos de los precios públicos por las estancias en colonias y campamentos para el ejercicio 2017.

cve: BAO-BOB-2017a051

Foru-dekretu hau izapidetzeko, halakoetan dagokion kontrol ekonomikoari buruzko txostena egin da, eta kontuan hartu da zer ezartzen den bi lege-testu hauetan: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2017ko martxoaren 7ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau:

XEDATZEN DA:

**1. artikulua.—*Xedea***

Hemen zehazten den prezio publikoa aplikatu behar zaie «Udalekuak 2017» kanpainan Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak, zuzenean zein hitzarmenen bidez, antolatzen dituen udaleku eta kanpamentuetako egonaldiei dagokie.

**2. artikulua.—*Ordaindu behar dutenak***

Prezio publiko hau ordaindu behar dute aipatu instalazioetan egonaldia egiteko eskubidea ematen zaien pertsona fisikoek.

**3. artikulua.—*Kobrantza***

Egonaldietarako lekua behin betiko esleitzen denetik aurrera izango da ordaindu beharra, betiere dena delako instalazioan egonaldia hasi aurretik.

**4. artikulua.—*Elementu kuantitatiboak***

**Bat.** «Udalekuak 2017» kanpainako prezio publikoa honako tarifa hauen arabera eskatuko da:

— Zerbitzua: Udaleku eta kanpamentuetako egonaldiak («Udalekuak 2017»).

— Adina: 7-13.

— Txanda: 7 egun/días.

— Tarifa: 121,00 euro.

**Bi.** Ordaindu behar dutenen arteko batzuei %85eko hobaria aplikatuko zaie prezio publikoaren tarifan, honako hauei, hain zuzen: behin-behinean kanpamentuetarako leku bat adjudikatu eta eskabideak aurkezteko epealdiko azken egunean Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten familia-unitateetako kideei.

**Hiru.** Ordaindu behar dutenen arteko beste batzuei %30eko hobaria aplikatuko zaie prezio publikoaren tarifan, honakoei: behin-behinean kanpamentuetarako leku bat adjudikatu eta eskabideak aurkezteko epealdiko azken egunean indarreko legeriaren arabera familia ugaritzat onartutako familia-unitateetako kideei (kategoria guztietan).

**5. artikulua.—*Kudeaketa eta likidazioa***

**Bat.** Euskara eta Kultura Sailak egingo ditu prezio publiko honen kudeaketa eta likidazioa. Aipatu instalazioetan egonaldiak egiteko, prezio publikoa aldez aurretik ordaindu behar da.

**Bi.** Prezio publikoa ordaintzeko, haren zenbatekoa sartu behar da Bizkaiko Foru Aldundiak berariaz ezarritako kontu korrontean, lekua behin betiko adjudikatu ondoren eta egonaldia hasi aurretik.

**Hiru.** Foru dekretu honetan xedatu ez den guztian, batez ere zorra ordaintzeko tokiari eta epeei dagozkien arloetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-bilketari buruzko araudian ezarritakoa izango da aginduzko.

Para la tramitación de este Decreto Foral se ha emitido el correspondiente informe de control económico y se ha observado lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en su reunión del día 7 de marzo de 2017,

SE DISPONE:

**Artículo 1.—*Objeto***

Constituye el objeto del presente precio público las estancias en las colonias y campamentos de la campaña «Udalekuak 2017», organizadas, directamente o a través de los oportunos convenios, por el Departamento de Euskera y Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

**Artículo 2.—*Obligados al pago***

Quedan obligadas al pago del presente precio público las personas físicas a cuyo favor se conceda la estancia en las instalaciones mencionadas.

**Artículo 3.—*Cobro***

La obligación de pagar el presente precio público nace desde el momento en que se adjudique definitivamente la plaza, previamente al inicio de la estancia en la instalación de que se trate.

**Artículo 4.—*Elementos cuantitativos***

**Uno.** El precio público de la campaña «Udalekuak 2017» se exigirá conforme a las siguientes tarifas:

— Servicio: Estancia en colonias y campamentos («Udalekuak 2017»).

— Edad: 7-13.

— Turno: 7 egun/días.

— Tarifa: 121,00 euros.

**Dos.** La tarifa aplicable a las personas obligadas al pago del presente precio público a quienes se les hubiera adjudicado provisionalmente la plaza e integradas en una unidad familiar perceptora de la Renta de Garantía de Ingresos el último día de la presentación de solicitudes será objeto de una bonificación del 85 por 100.

**Tres.** La tarifa aplicable a las personas obligadas al pago del presente precio público a quienes se les hubiera adjudicado provisionalmente la plaza e integradas en una unidad familiar que, según la legislación vigente, se encuentre reconocida como Familia Numerosa en cualquier categoría el último día de la presentación de solicitudes será objeto de una bonificación del 30 por 100.

**Artículo 5.—*Gestión y liquidación***

**Uno.** La gestión y liquidación de este precio público corresponde al Departamento de Euskera y Cultura. Se exigirá el pago previo de su importe para poder beneficiarse de la estancia en las instalaciones mencionadas.

**Dos.** El pago del precio público se efectuará ingresando el importe correspondiente en la cuenta corriente habilitada al efecto por la Diputación Foral de Bizkaia, una vez adjudicada definitivamente la plaza y previamente al inicio de la estancia en la instalación de que se trate.

**Tres.** En todo lo no dispuesto en el presente Decreto Foral, en especial, en lo relativo al régimen de plazos y lugar de pago de la deuda, se estará a lo previsto en el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Bizkaia.

cve: BAO-BOB-2017a051

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean jarrita, indargabeturik geratuko da martxoaren 8ko 41/2016 Foru Dekretua, zeinaren bidez «Udalekuak 2016» kanpainako udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoa ezartzea erabaki da eta haren gaineko arauak garatzen ziren.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena: Baimena ematen zaie Ogasun eta Finantza Saileko eta Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuei foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

*Bigarrena:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Bilbon, 2017ko martxoaren 7an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-202)

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A la entrada en vigor del presente Decreto Foral queda derogado el Decreto Foral 41/2016, de 8 de marzo, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del Precio Público por las estancias en colonias y campamentos de la campaña «Udalekuak 2016».

DISPOSICIONES FINALES

*Primera:* Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas y a la diputada foral de Euskera y Cultura para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

*Segunda:* El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 7 de marzo de 2017.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-202)

•

## Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Saila

**Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko foru diputatuaren otsailaren 27ko 266/2017 FORU AGINDUA, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaia betearazteari dagokiona.**

María Luisa Ibarzabal Miota andreak eta beste batzuek Izurtzako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra behin betiko (zati batean) onesten duen maiatzaren 15eko 3848/2015 Foru Aginduaren aurka, eta plan orokor horren araudia argitaratzea xedatzen duen 2016ko ekainaren 15eko egintzaren aurka jarritako 420/2015 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan eman zen epaia.

Aipatu Foru Aginduaren bidez, ondokoa xedatu izan da:

*Lehenengoa:* EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 420/2015 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan emandako epaitzak dakarren adierazpena betearaztea eta, ondorioz, adieraztea deuseztatuta dagoela Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 15eko 3848/2015 Foru Agindua (2015eko maiatzaren 22ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 96. zenbakia), eta deuseztatutzat ematea Izurtzako udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, ebazpen horretan aipatzen dena.

*Bigarrena:* Ebazpen hau EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari, Izurtzako Udalari, alderdi errekurtsogileari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari jakinaraztea, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Administrazio-bidea amaitzen duen aurreko ebazpen horren kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakezu, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Jurisdikzio horri dagokion Salan; hala ere, zure interesak babesteko egoki deritzozun beste edozein neurri ere erabil dezakezu.

Aipatu epean zehar BHI-134/2014-P03-G espedientea agerian utziko da, aztertu nahi denerako, Bilboko Rekalde Zumarkaleko 18. zenbakiaren 2. solairuan.

Bilbon, 2017ko otsailaren 27an.

Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen
Kohesioa Sustatzeko foru diputatua,
VICENTE REYES MARTÍN

(I-203)

## Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio

**ORDEN FORAL del diputado foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio 266/2017, de 27 de febrero, relativa a la ejecución de la sentencia dictada por la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.**

Recaída en el recurso contencioso administrativo 420/2015, deducido por María Luisa Ibarzabal Miota y otros contra la Orden Foral 3848/2015, de 15 de mayo, relativa a la aprobación definitiva parcial del Plan General de Ordenación Urbana de Izurtza y contra el acto administrativo de 15 de junio de 2016 por el que se dispone la publicación de la normativa de dicho Plan General.

Mediante la Orden Foral de referencia se ha dispuesto lo siguiente:

*Primero:* Proceder al cumplimiento de la declaración contenida en el fallo de la sentencia dictada por la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, recaída en el recurso contencioso administrativo número 420/2015 y en consecuencia declarar anulada la Orden Foral 3848/2015, de 15 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia («Boletín Oficial de Bizkaia» número 96 de 22.5.15), y tener por anulado el Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Izurtza al que se refiere dicha resolución.

*Segundo:* Notificar la presente resolución a la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, al Ayuntamiento de Izurtza, a la parte recurrente, a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, y publicarla en el «Boletín Oficial de Bizkaia.

Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la resolución, ante la Sala de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, sin perjuicio de cualquier otra medida que estime procedente en defensa de sus intereses.

Durante el referido plazo el expediente BHI-134/2014-P03-G quedará de manifiesto para su examen en las dependencias de Bilbao, Alda. Rekalde, 18, 2.ª planta.

En Bilbao, a 27 de febrero de 2017.

El diputado foral de Transportes, Movilidad
y Cohesión del Territorio,
VICENTE REYES MARTÍN

(I-203)

cve: BAO-BOB-2017a051

**Epaia betearaztea**

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 901/2016 apelazio-errekurtsoan emandako 471/2016 epaia betearaztea. Apelazio-errekurtso hori Bilboko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak 377/2011 prozedura arruntean emandako uztailaren 23ko 132/2015 epaiaren aurka jarri zen, eta I. Arne Muriola, S.L., Abandonada Muriola, S.L. eta Astarloa 91, S.L., sozietateek sustatu zuten prozedura arrunt hori Barrikako Udalaren presuntziozko ezespenaren aurka eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2011ko martxoaren 8ko ebazpenaren aurka, zeinak ezetsi baitzuen ekainaren 27ko 421/2001 Foru Aginduaren deuseztapenaren ondoriozko kaltegaleren ziozko ondare-erantzukizuneko ekintza. Izan ere, foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Barrikako Plangintzaren Arau Subsidiarioen aldaketa. 2016ko urriaren 31ko 471/2016 epai horretan ezarritako moduan geratu da idatzita haren epaitza.

*Aurrekariak*

*Lehenengoa:* Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 104. artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion jarduera egin duen organoak betearazi behar du epaitza, eta bertan dauden adierazpenak betetzeko behar dena egin behar du. Kasu honetan, Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Sailari dagokio epaitza betetzea; izan ere, haren esku daude orain hirigintzaren arloko eskumenak, eta arlo horretakoa da errekurtsoak aurkaratutako administrazio-jarduera.

*Bigarrena:* Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren urriaren 31ko 471/2016 epaiaren epaitzak honela dio (guri dagokigun zatian):

«Que, estimamos parcialmente el recurso de apelación interpuesto por la representación I. Arne Muriola, S.A., Abandonada Muriola, S.L. y Astarloa 91, S.L., debemos estimar parcialemente su demanda fijando como indemnización la cantidad de 230.631,74 euros, por daños reclamados en relación con el sector Muriola; y la Cantidad de 1.290.033,26 euros, en relación con el Sector San Telmo, desestimando en lo demás la pretensión indemnizatoria, condenando solidariamente al Ayuntamiento de Barrika y a la Diputación Foral de Bizkaia al pago de la indemnización fijada, más los intereses legales que correspondan.

Sin que proceda expresa imposición de las costas procesales causadas [...].»

Epaitzaren edukia kontuan hartua, Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Sailak Muriola sektoreari dagokionez erreklamatutako kalteen ondoriozko ordainaren erdia ordainduko du, hau da, 115.315,87 euro, eta San Telmo sektoreari dagokionez erreklamatutako kalteen ondoriozko ordainaren erdia, hots, 645.016,63 euro. Halaber, zenbateko horiei dagozkien legezko interesak ordainduko ditu, Bizkaiko Foru Aldundiari epaia irmoa dela jakinarazi zitzaion egunera arte kalkulatuak, hain zuen, 28.562,00 euro eta 159.760,92 euro, hurrenez, hurren. Zenbateko biak batuta, Aldundiak bederatziehun eta berrogeita zortzi mila seiehun eta berrogeita hamabost euro eta berrogeita bi zentimo ordainduko ditu (948.655,42 euro). Barrikako Udalak, berriz, sektore biei dagokien printzipalaren beste erdia eta legezko interesak ordainduko ditu. Beheko tauletan adierazita dago Bizkaiko Foru Aldundiak ordaindu beharreko legezko interesen kalkulua:

**Ejecución de la sentencia**

Ejecución de la sentencia dictada por la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, recaída en el recurso de apelación 901/2015, contra la sentencia número 132/2015, de 23 de julio, del Juzgado de lo Contencioso Administrativo número 3 de Bilbao, dictada en el Procedimiento Ordinario 377/2011, deducido por Astarloa 91, S.L., I. Arne Muriola, S.L., y Abandonada Muriola, S.L., contra la desestimación presunta del Ayuntamiento de Barrika y contra la Resolución de 8 de marzo de 2011 de la Diputación Foral de Bizkaia desestimatoria de la Acción de Responsabilidad Patrimonial por daños y perjuicios derivados de la anulación de la Orden Foral 421/2001, de 27 de junio, por la que se aprueba definitivamente la modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Barrika, cuyo fallo queda redactado en los términos establecidos por la Sentencia 471/2016, de 31 de octubre de 2016.

*Antecedentes*

*Primero:* De conformidad con lo dispuesto en el artículo 104 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa, corresponderá al órgano que hubiera realizado la actividad objeto del recurso contencioso administrativo llevar a puro y debido efecto el fallo recaído y practicar todo lo que exija el cumplimiento de las declaraciones contenidas en el mismo. En el presente caso corresponde el cumplimiento de tal deber al Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio que es el que ahora tiene las competencias en materia de urbanismo de donde procede la actividad administrativa objeto de impugnación en el presente recurso.

*Segundo:* El contenido del fallo de la Sentencia número 471/2016 de 31 de octubre, de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en lo que aquí interesa, indica lo siguiente:

«Que, estimamos parcialmente el recurso de apelación interpuesto por la representación I. Arne Muriola, S.A., Abandonada Muriola, S.L. y Astarloa 91, S.L., debemos estimar parcialemente su demanda fijando como indemnización la cantidad de 230.631,74 euros, por daños reclamados en relación con el sector Muriola; y la Cantidad de 1.290.033,26 euros, en relación con el Sector San Telmo, desestimando en lo demás la pretensión indemnizatoria, condenando solidariamente al Ayuntamiento de Barrika y a la Diputación Foral de Bizkaia al pago de la indemnización fijada, más los intereses legales que correspondan.

Sin que proceda expresa imposición de las costas procesales causadas [...].»

Tomando en consideración el contenido del fallo, el Departamento de Transportes, Movilidad, y Cohesión del Territorio tiene a bien satisfacer la mitad de la indemnización por los daños reclamados en relación con el sector Muriola, esto es 115.315,87 euros, y la mitad de la indemnización por los daños reclamados en relación con el sector San Telmo, esto es 645.016,63 euros. Asimismo los intereses legales correspondientes a ambas cantidades calculados hasta la fecha de notificación de la firmeza de la sentencia a la Diputación Foral de Bizkaia, ascienden a la cantidad de 28.562,00 euros y 159.760,92 euros respectivamente. La suma de los importes arroja un total de novecientos cuarenta y ocho mil seiscientos cincuenta y cinco euros con cuarenta y dos céntimos (948.655,42 euros). El Ayuntamiento de Barrika abonará la otra mitad del principal correspondiente a ambos sectores y sus correspondientes intereses legales. La siguientes tablas recogen el cálculo de los intereses legales que abona la Diputación Foral de Bizkaia:

**Muriola sektorea / Sector Muriola**

| Noiztik / Desde | Noiz arte / Hasta | Egunak / Días | Kapital metatua / Capital Acumulado | Interesak % / % Intereses | Interesak guztira / Total Intereses |
|---|---|---|---|---|---|
| 17/06/2010 | 31/12/2010 | 198 | 115.315,87 | 4 | 2.502,20 |
| 01/01/2011 | 31/12/2011 | 365 | 115.315,87 | 4 | 4.612,63 |
| 01/01/2012 | 31/12/2012 | 366 | 115.315,87 | 4 | 4.612,63 |

cve: BAO-BOB-2017a051

| Noiztik / Desde | Noiz arte / Hasta | Egunak / Días | Kapital metatua / Capital Acumulado | Interesak % / % Intereses | Interesak guztira / Total Intereses |
|---|---|---|---|---|---|
| 01/01/2013 | 31/12/2013 | 365 | 115.315,87 | 4 | 4.612,63 |
| 01/01/2014 | 31/12/2014 | 365 | 115.315,87 | 4 | 4.612,63 |
| 01/01/2015 | 31/12/2015 | 365 | 115.315,87 | 3.5 | 4.036,06 |
| 01/01/2016 | 31/12/2016 | 366 | 115.315,87 | 3 | 3.459,48 |
| 01/01/2017 | 12/01/2017 | 12 | 115.315,87 | 3 | 113,74 |
| Interesen batura / Suma intereses | | | | | 28.562,00 |
| Guztira / Total | | | | | 143.877,87 |

**San Telmo Sektorea / Sector San Telmo**

| Noiztik / Desde | Noiz arte / Hasta | Egunak / Días | Kapital metatua / Capital Acumulado | Interesak % / % Intereses | Interesak guztira / Total Intereses |
|---|---|---|---|---|---|
| 17/06/2010 | 31/12/2010 | 198 | 645.016,63 | 4 | 13.995,98 |
| 01/01/2011 | 31/12/2011 | 365 | 645.016,63 | 4 | 25.800,67 |
| 01/01/2012 | 31/12/2012 | 366 | 645.016,63 | 4 | 25.800,67 |
| 01/01/2013 | 31/12/2013 | 365 | 645.016,63 | 4 | 25.800,67 |
| 01/01/2014 | 31/12/2014 | 365 | 645.016,63 | 4 | 25.800,67 |
| 01/01/2015 | 31/12/2015 | 365 | 645.016,63 | 3.5 | 22.575,58 |
| 01/01/2016 | 31/12/2016 | 366 | 645.016,63 | 3 | 19.350,50 |
| 01/01/2017 | 12/01/2017 | 12 | 645.016,63 | 3 | 636,18 |
| Interesen batura / Suma intereses | | | | | 159.760,92 |
| Guztira / Total | | | | | 804.777,15 |

*Hirugarrena:* Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko foru diputatuari dagokio, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onesten duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen 9.c) artikuluak ezarri duenarekin bat, bere Sailari esleitutako kredituak baimentzea eta horien gastua eta obligazioa ezartzea eta aintzatestea eta ordaintzea proposatzea.

Azaldutako guztiagatik, hauxe proposatu da

EBAZPEN-PROPOSAMENA

*Lehenengoa:* Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 901/2016 apelazio-errekurtsoan emandako 471/2016 epaia betearaztea. Apelazio-errekurtso hori Bilboko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak 377/2011 prozedura arruntean emandako uztailaren 23ko 132/2015 epaiaren aurka jarri zen, eta I. Arne Muriola, S.L. (IFK: B-95128310), Abandonada Muriola, S.L. (IFK: B-95115333) eta Astarloa 91, S.L. (IFK: B-48456164) sozietateek sustatu zuten prozedura arrunt hori Barrikako Udalaren presuntziozko ezespenaren aurka eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2011ko martxoaren 8ko ebazpenaren aurka, zeinak ezetsi baitzuen ekainaren 27ko 421/2001 Foru Aginduaren deuseztapenaren ondoriozko kalte-galeren ziozko ondare-erantzukizuneko ekintza. Izan ere, foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Barrikako Plangintzaren Arau Subsidiarioen aldaketa. Beraz:

1. Gastua baimendu eta xedatzea, obligazioa onartzea, eta bederatziehun eta berrogeita zortzi mila seiehun eta berrogeita hamabost euro eta berrogeita bi zentimoko (948.655,42 euro) kalte-ordaina Administrazioarekiko Auzien Bilboko 3 zenbakiko Epaitegiaren kontuan ordaintzeko proposamena egitea.

2. Zenbateko hori Epaitegiko kontura egingo den transferentzia baten bidez ordaintzea: IBAN ES55 0049 3569 92 0005001274 – 4759000085 – 0377/11.

*Bigarrena:* Ebazpen hau ondoko hauei Auzien Salari, Barrikako Udalari jakinaraziko zaie: EAEko Justiziako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko eta errekurtsoa egin duen alderdiari. Gainera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Bilbon, 2017ko otsailaren 15ean.—Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Saileko foru diputatua, Vicente Reyes Martín

(I-198)

*Tercero:* Corresponde al diputado foral del Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio de la Diputación Foral de Bizkaia autorizar, disponer el gasto, reconocer la obligación y proponer el pago de los créditos asignados a su Departamento, en virtud del artículo 9 c) del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria.

Por todo lo expuesto, se propone la siguiente:

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

*Primero:* Proceder a la ejecución de la sentencia dictada por la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, recaída en el recurso de apelación 901/2015, deducido por la I. Arne Muriola, S.L. (C.I.F. B-95128310), Abandonada Muriola, S.L., (C.I.F. B-95115333) y Astarloa 91, S.L., (C.I.F. B-48456164) contra la sentencia número 132/2015, de 23 de julio, del Juzgado de lo Contencioso Administrativo número 3 de Bilbao, dictada en el Procedimiento Ordinario 377/2011, deducido por los apelantes señalados contra la desestimación presunta del Ayuntamiento de Barrika y contra la Resolución de 8 de marzo de 2011 de la Diputación Foral de Bizkaia desestimatoria de la Reclamación de Responsabilidad Patrimonial por daños y perjuicios derivados de la anulación de la Orden Foral 421/2001, de 27 de junio, por la que se aprueba definitivamente la modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Barrika, y en consecuencia:

